

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

14018 *Huts-zuzenketa, errege lege-dekretu honena: 11/2019 Errege Lege Dekretua, irailaren 20koa, Denboraleek eta bestelako egoera katastrofikoek eragindako kalteak arintzeko presako neurriak hartzen dituen.*

Irailaren 20ko 11/2019 Errege Lege Dekretua argitaratu zen 2019ko irailaren 21eko *Estatuko Aldizkari Ofizialean*, 227. zenbakian, haren bidez presako neurriak hartzeko denboraleek eta beste egoera katastrofiko batzuek eragindako kalteak arintzeko; bada, hutsak aurkitu ditugu errege lege-dekretu horretan, eta honen bidez zuzentzen ditugu:

4. orrialdean, 1. artikulua lehenengo apartatuan, lehenengo paragrafoan, azken tartekian, hau dioen lekuan: «... 2019ko irailaren 12tik 16ra»; honela behar du: «... 2019ko irailaren 9tik 16ra».

13. orrialdean, hirugarren xedapen gehigarrian, hirugarren eta laugarren lerroetan, hau dioen lekuan: «... 10. eta 11. artikuluetan ezarritako jabari publikoko jarduerak...»; honela behar du: «... 12. eta 13. artikuluetan ezarritako jabari publikoko jarduerak...».